


Nerbio-sistemako eta zirkulazio-aparatuko gaixotasunengatik izan ziren Euskal AEko ospitaleetako alta gehienak 2009an

Ingresatutako %42,6k 65 urte eta gehiago zituen eta kataratak eta bihotz-gutxiegitasuna izan ziren ingresatzeko arrazoi nagusiak

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko akutuen ospitale publiko eta pribatuek 316.559 alta izan zituzten 2009n (2008an baino 298 gutxiago). Alteen %74 ospitale publikoetakoa izan zen eta %26 pribatuetakoa.

Altako episodioak, ingresatzen den egun berean alta hartzen duten pazienteak, %4,8 igo ziren 2009an. Ospitaleetako lau altetatik bat honelakoa izaten da eta gero eta zabalduago dago ospitaleetan. Patologiarik ohikoenak kataratak, barizeak eta belauneko lesioak izaten dira. Ohiko ospitalizazioak (egun bat baino gutxiagoko egonaldiak) %1,7 jaitsi ziren eta osteortrosis, behazuneko harriak eta bihotz-gutxiegitasunak izan ziren ohiko zergatiak.

Ospitaleko alta jasotzen duten pazienteak, ohiko diagnostiko taldearen, egonaldiaren eta sexuaren arabera



Iturria: Eustat. Ospigaleetako erikortasu estatistika

Euskal AEko 2009ko ospitalizazio zergati nagusiak nerbio-sistemako eta zentzumenen organoetako gaixotasunak (kataratak nabarmentzen dira) paziente guztien %11,8rekin eta zirkulazio-sistemakoak (%11,7) izan ziren. Hirugarren tokian digestio-aparatuko gaixotasunak egon ziren (%11,3) eta laugarren eta bosgarren tokian tumoreak eta arnas aparatuko gaixotasunak, biak %9 ingururekin.

Ospitaleetako batez besteko egonaldia 6,3 egunekoa izan zen; egonaldirik luzeenak buruko gorabeherengatik eta gaixotasun perinatalengatik izan ziren (14,3 eta 13,2 egun, hurrenez hurren), gaixotasun infekziosoak eta tumoreak egon ziren ondoren (9 egun). Batezbesteko egonaldia 4,1 egunera murrizten da ospitale pribatuetan eta hezur eta muskuluetakako gaixotasunak izan ziren ingresatzeko arrazoi nagusiak (belaunaren barneko gorabeherak eta osteoartrosisa nabarmendu ziren).

Ospitaleratutako pertsona guztien %51,7 emakumezkoa izan zen eta gizonek (%48,3) baino alta gehiago jaso zituzten haurdunaldien eta erditzeen ondorioz. Adina gehitu ahala ospitaleen laguntza gehiago eskatu zen: 2009. urtean ospitaleratu ziren pertsonen %42,6k 65 urte eta gehiago zituen. Gizon gehienek 76 urte zituzten eta emakumeek 77 (haurdunaldi, erditze eta erditze ondorengo ospitaleratzeak kontuan izan gabe).

Ospitaleetako erikortasunen arrazoiak ez dira kopuru berean ematen generoa eta adina bereiziz gero. Gizonetan zirkulazio-sistemako eta digestio-aparatuko gaixotasunak izan ziren ospitaleratzeko arrazoi nagusiak (%14 inguru bi kasuetan) eta jarraian arnas aparatukoak zeuden; emakumeen kasuan, haurdunaldia, erditzea eta puerperioa izan ziren nagusi (%16) eta nerbio-sistemako eta zentzumenen organoetako gaixotasunak ere bai (%13).

Adin tarte batzuetan ospitaleratzeko beste gaixotasun taldeak hauek izan ziren: Arnas gaixotasunak (amigdalak/adenoideak nabarmen izan dira) 0 eta 14 urte arteko gazteetan; hausturak eta lesioak (belauneko lokadura) eta digestio-aparatukoak (apendizitisa) 15-44 urteko gizonen artean; tumoreak (bularreko neoplasia) eta osteomuskularrak (oineko behatz lodiko deformazioa eta meniskoko lesioa) 45-64 urteko emakumeen artean eta digestio-aparatua (iztai-etena) adin bereko gizonen artean.

Ospitaleko alta jasotzen duten pazienteak, ohiko diagnostiko taldearen, adinaren eta sexuaren arabera

	0-14		15-44		45-64		65 eta gehiago	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Total	9.318	6.335	29.692	52.549	46.648	37.011	67.390	67.616
gaixotasunak	278	201	684	418	538	253	630	581
Neoplasiak (tumoreak)	225	228	1.288	2.929	5.614	5.354	8.092	5.132
Gaixotasun endokrinoak, nutrizioarenak eta metabolikoak	66	48	318	685	590	767	825	1.063
Buru-nahasteak	50	47	1.537	967	755	635	302	457
Nerbio-sistemako eta sentimen- organoetako gaixotasunak	795	655	1.419	1.836	3.572	4.104	10.066	15.022
Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	66	39	1.785	1.502	6.738	3.516	12.515	10.915
Arnas aparatuko gaixotasunak	2.011	1.463	3.148	2.164	3.263	1.980	8.368	5.839
Digestio-aparatuko gaixotasunak	1.080	753	4.587	3.420	7.270	4.074	8.062	6.480
Aparatu genitourinarioko gaixotasunak	657	184	1.119	4.475	2.283	2.980	3.982	3.073
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoak	-	12	-	25.874	-	81	-	-
Azaleko eta larruazalpeko ehunetako gaixotasunak	166	136	1.349	784	806	599	626	777
Sistema osteo-mioartikularreko gaixotasunak	202	184	4.522	2.249	5.624	5.329	3.397	6.183
Sortzetiko anomaliak	861	459	239	490	166	141	24	31
Jaiotza-inguruan sortutako gaixotasunak	1.000	836	-	-	-	-	-	-
Gaizki zehaztutako sintomak, ezaugarriak eta egoerak	465	365	1.194	1.108	2.500	1.539	3.516	3.339
Lesioak eta pozoitzeak	767	389	4.886	1.519	3.753	2.309	3.596	5.739
Beste batzuk	629	336	1.617	2.129	3.176	3.350	3.389	2.985

Iturria: Eustat. Ospigaleetako erikortasu estatistika

Era berean, zirkulazioko gaixotasunak (bihotz gutxiegitasuna) eta nerbio-sistemako eta zentzumen organoetakoak (katarata) izan ziren 65 urte eta gehiagokoetan ohikoenak, pazienteen %36rekin.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Marta de la Torre Fernández

Tel.: +34-945-01 75 48 Faxe: +34-945-01 75 01

Ospitaleetako erikortasunaren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Ospitaleetako erikortasunaren estatistikaren datu-basea